

## Ingeniaritza eta Europako Goi Hezkuntzako Esparrua eztabaidagai Mondragon Unibertsitatean.

2011/03/01

Arrasaten, 2011ko martxoaren 1a. Karrera amaitu eta bi hilabete eta erdira, Mondragon Unibertsitateko ingeniariak lana izaten dute. Enpresek, krisia gorabehera, berentzat nahi izaten dituzte. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitatearentzat funtsezkoa da erakunde horiekin harremana estutzea, ikasleen prestakuntza horien eskarira egokitzeko eta zalantzak argitzeko. Zer nahi du enpresa batek ingeniari bat kontratatzen duenean? Bologna indarrean sartu denetik, aldatu egin da horien prestakuntza? Zer aukera ditu ikasle batek bere karrera-amaierako proiektua enpresa batean egiteko edo prestakuntzarekin jarraitzen duen bitartean praktikak egiteko? Ingeniariak, enpresan lan egitera sartzen direnean, prestakuntza jasotzen jarrai dezakete?

Galdera horiei eta beste batzuei erantzuteko, Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak gaur, asteartez, enpresei zuzendutako jardunaldia antolatuko du, "Ingeniaritza eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua" izenburupean. Jardunaldiak 50 enpresa eta erakundetako arduradunak bilduko ditu, Hezkuntza Esparru berrian ingeniariaren etorkizunari eta enplegarritasunari buruz hitz egiteko. Jardunaldian –9:00etan hasi eta 11:30ean amaituko da, ingeniariari eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruari buruzko debate batekin– honako gai hauek jorratuko dira: unibertsitatea eta ikasketa-plan berriak, horrek ekarri dituen aldaketak eta lehen emaitzak –gaitzuen ehunekoak gora egin du (% 80 edo 90), prestakuntzaren kalitatea jaitsi gabe–, Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoaren titulazioak, eskaintzen dituen graduak eta masterrak, ingeniari teknikoek beren profila masterrekin edo graduarekin osatzeko aukera, praktikak enpresetan egiteko aukera eta karrera-amaierako proiektuak. Bologna indarrean sartu zenetik, titulazioetan prestakuntza praktikoak garrantzi handiagoa hartu du, bai borondatezko eta nahitaezko praktikei, bai gradu-amaierako proiektuari esker.

Mondragon Unibertsitateko ingeniariaren % 95ek lana bi hilabete eta erdian lortzen du, eta horren erantzule nagusia unibertsitatea da; izan ere, oso harreman estua du enpresekin eta ikasleek karrera-amaierako proiektuak horietan egitea sustatzen du. Laneko esperientziaren bidezko ikaskuntza hori Mondragon Unibertsitatearen ezaugarri nagusietariko bat da, eta bere hezkuntza- eta unibertsitate-ereduari datxekiona. Ikasleek beren unibertsitateko prestakuntza-aldian enpresarekin eta lan-munduarekin duten harremana Mondragon Unibertsitatearen ADNaren parte da. Horri esker, ikaskuntza praktikoagoa eta lan-munduaren ezagutza hobea dute.

Prestakuntza praktiko hori enpresetako eta ikastetxeetako praktiken bitartez gauzatzen da, ikasleek inguruko enpresetan edo erakundeetan egiten dituzten karrera-amaierako proiektuen bitartez eta, ikasketak eta lana aldizkatuz, Alecop enpresa kooperatiboan lanaldi-erdiz lan eginez.

Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak honako gradu-titulazio hauek eskaintzen ditu: Ingeniaritza Mekanikoa, Industria Elektronikako Ingeniaritza, Industria Antolakuntzako Ingeniaritza, Informatikako Ingeniaritza, Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza eta Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza.



Ingeniaritza eta Europako Goi Hezkuntzako Esparrua eztabaidagai